Bestelako Xedapenak

EKONOMIA ETA OGASUN SAILA

3064

EBAZPENA, 2010eko ekainaren 1ekoa, Ogasun eta Finantzetako sailburuordearena. Horren bitartez, adjudikatu egin dira Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2010eko otsailaren 24ko Aginduaren bitartez deitu ziren gizarte-aurreikuspen osagarriaren arloko bi ikerketa-bekak.

Aztertu da Gizarte Aurreikuspen Osagarriaren alorrean bi ikerketa-beka emateko deialdia egin zuen Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2010eko otsailaren 24ko Aginduaren bitartez (2010eko martxoaren 11ko EHAA, 48. zenbakia) hasi zen administrazio-prozedura. Horrela bada, Ogasun eta Finantzetako sailburuordeak honako ebazpen hau egin du, aurrekari hauek oinarri hartuta:

AURREKARIAK

Lehenengoa.– Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2010eko otsailaren 24ko Aginduaren bitartez (2010eko martxoaren 11ko EHAA, 48. zenbakia) Gizarte Aurreikuspen Osagarriaren alorrean bi ikerketa-beka emateko deialdia egin zen, eta deialdi horrek gizarte-aurreikuspeneko erakundeen arloan ikertzeko, euren burua prestatzeko eta lankidetzan aritzeko aukera emango die onuradunei.

Bigarrena.– Josune López Rodríguez andreak, Rocío García Abad andreak eta Estíbaliz Montero Mendoza andreak aurkeztu dituzte deitutako bekak eskuratzeko eskabideak, deialdiari buruzko aginduaren seigarren oinarrian horretarako eman zen epean.

Hirugarrena.– 2010eko maiatzaren 3an, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2010eko otsailaren 24ko Aginduaren bitartez deitu ziren Gizarte Aurreikuspen Osagarriaren alorreko bi ikerketa-beken Hautaketa Batzordeak, beka horiek adjudikatzeko proposamena Ogasun eta Finantzetako sailburuordeari helarazteko erabakia hartu zuen.

OINARRI JURIDIKOAK

Lehenengoa.– Gizarte Aurreikuspen Osagarriaren alorrean bi ikerketa-beka emateko deialdia egin zuen 2010eko otsailaren 24ko Aginduaren zortzigarren oinarrian ezarritakoaren arabera, Ogasun eta Finantzetako sailburuordeari dagokio aipatutako deialdiko bekak adjudikatzeko administrazio-prozedura hau ebazteko eskumena.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE ECONOMÍA Y HACIENDA

3064

RESOLUCIÓN de 1 de junio de 2010, de la Viceconsejera de Hacienda y Finanzas, por la que se adjudican dos becas de investigación, en materia de Previsión Social Complementaria, convocadas por Orden de 24 de febrero de 2010, del Consejero de Economía y Hacienda.

Visto el procedimiento administrativo iniciado mediante Orden de 24 de febrero de 2010, del Consejero de Economía y Hacienda (BOPV n.º 48, de 11 de marzo de 2010) en virtud de la que se convoca dos becas de investigación en materia de previsión social complementaria, por parte de la Viceconsejera de Hacienda y Finanzas, se dicta la presente resolución en base a los siguientes

ANTECEDENTES DE HECHO

Primero.– Mediante Orden de 24 de febrero de 2010, del Consejero de Economía y Hacienda (BOPV n.º 48, de 11 de marzo de 2010) fueron convocadas dos becas de investigación en materia de Previsión Social Complementaria que proporcionará a la personas beneficiarias la posibilidad de investigar, formarse y colaborar en el área de las Entidades de Previsión Social.

Segundo.– Han presentado solicitud para acceder a las becas convocadas, dentro del plazo conferido al efecto en la base sexta de la Orden de la convocatoria, doña Josune López Rodríguez, doña Rocío García Abad y doña Estíbaliz Montero Mendoza.

Tercero.– Con fecha 3 de mayo de 2010 la Comisión de Selección de las becas de Investigación en materia de Previsión Social Complementaria convocadas mediante Orden del Consejero de Economía y Hacienda de 24 de febrero de 2010, ha adoptado el acuerdo de elevar al Viceconsejero de Hacienda y Finanzas la propuesta correspondiente en orden a la adjudicación de estas becas.

CONSIDERACIONES JURÍDICAS

Primera.– De conformidad con lo establecido en la base Octava de la Orden de 24 de febrero de 2010, por la que se convocan dos becas de investigación en materia de Previsión Social Complementaria, la competencia para resolver el presente procedimiento administrativo de adjudicación de las becas objeto de la convocatoria aludida corresponde a la Viceconsejera de Hacienda y Finanzas.

Bigarrena.– Hautaketa-prozesua amaitu ondoren, eta Hautaketa Batzordeak helarazitako proposamenaren arabera, bekak adjudikatuko dira, eta ordezkapenetarako hautatutako pertsonak izendatuko dira.

Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2010eko otsailaren 24ko Aginduan ezarritakoaren arabera, honakoa eman dut:

EBAZPENA:

Lehenengoa.– Honako hauek izendatuko dira adjudikaziodun Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2010eko otsailaren 24ko Aginduaren bitartez deitu ziren Gizarte Aurreikuspen Osagarriaren alorreko bi ikerketa-bekei dagokienez: Josune López Rodríguez andrea, Zuzenbidean lizentziaduna, «Antecedentes históricos, análisis de la normativa actual, tendencias actuales a nivel comparado y propuestas de mejora de la normativa actual de la Previsión Social Complementaria en Euskadi» izeneko ikerketarako, eta Rocío García Abad andrea, Historian lizentziaduna, «El Mutualismo en la zona minera vizcaína (siglos XIX-XX)» izeneko ikerketarako.

Bigarrena.– Ordezpen-ordena ezarriko da, adjudikaziodunek ezeztatu edo uko eginez gero aplikatzeko. Bekak emateko hautaketa-prozesuaren lehenengo fasea gainditu duen hautagaiak (beken onuradunak salbuetsita) osatuko du hori. Horrela bada, Estíbaliz Montero Mendoza andrea izendatuko da ordezko.

Hirugarrena.– Fernando Manrique López jaunak (Deustuko Unibertsitateko Lanaren eta Gizarte Segurantzaren Zuzenbideko katedraduna) eta Rafael Ruzafa Ortega jaunak (Garaiko Historiaren irakaslea Euskal Herriko Unibertsitatean) egin beharko dituzte, hurrenez hurren, ikerketen segimendu, tutoretza eta zuzendaritza lanak.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa ipini ahal izango da Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren aurrean, hilabeteko epean, jakinarazi eta biharamunetik aurrera zenbatzen hasita, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 107. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko ekainaren 1a.

Ogasun eta Finantzetako sailburuordea,
MARÍA MANUELA ESCRIBANO RIEGO.

Segunda.– Finalizado el proceso selectivo y de acuerdo con la propuesta elevada por la Comisión de Selección, se procede a la adjudicación de las becas, y a la designación de las personas seleccionadas a efectos de suplencias.

De conformidad con lo establecido en la Orden de 24 de febrero de 2010, del Consejero de Economía y Hacienda,

RESUELVO:

Primero.– Declarar adjudicatarias de las becas de investigación en materia de Previsión Social Complementaria convocadas mediante Orden de 24 de febrero de 2010, del Consejero de Economía y Hacienda, a doña Josune López Rodríguez, Licenciada en Derecho, para la investigación denominada antecedentes históricos, análisis de la normativa actual, tendencias actuales a nivel comparado y propuestas de mejora de la normativa actual de la Previsión Social Complementaria en Euskadi y a doña Rocío García Abad, Licenciada en Historia, para la investigación denominada El Mutualismo en la zona minera vizcaína (siglos XIX-XX).

Segundo.– Establecer el orden de suplencias para el caso de revocación o renuncia de las adjudicatarias, que ha de quedar integrado por aquella candidata que haya superado la primera fase del proceso selectivo para la concesión de las becas, a excepción de las beneficiarias de las mismas. A tal fin, queda designada como suplente doña Estíbaliz Montero Mendoza.

Tercero.– Corresponderán las tareas de seguimiento, tutoría y dirección de las investigaciones, a don Fernando Manrique López catedrático de Derecho del Trabajo y de la Seguridad Social de la Universidad de Deusto, y a don Rafael Ruzafa Ortega profesor de Historia Contemporánea de la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea, respectivamente.

Cuarto.– Contra la presente Resolución podrá interponerse recurso de alzada ante el Consejero de Economía y Hacienda del Gobierno Vasco, en el plazo de un mes, a contar desde el día siguiente a su notificación, de conformidad con lo dispuesto en los artículos 107 y siguientes de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre.

En Vitoria-Gasteiz, a 1 de junio de 2010.

La Viceconsejera de Hacienda y Finanzas,
MARÍA MANUELA ESCRIBANO RIEGO.